



### Esperientzia adierazgarriak

Boliviako emakume indigenen eragin politikoa



### Iparra galdu gabe

Emakumeen Munduko Martxa



### Aurpegia ematen dugu

Conchi Picón, Finantza Saila



### 20. urteurrena Habanan

## Chiapasko eta Mexiko osoko herri indigenek luraren eta lurraldearen aldeko itunak indartu dituzte



**2**010eko urte honetan, Mexikoko Iraultzaren Mendeurrena eta Mexikoko Independentziaren Bigarren Mendeurrena ospatzen dira, eta herrialdeko zein Chiapasko Estatuko herri indigenek orain dela 500etik gora urte luraren eta lurraldearen alde hasitako borrokari eusten diote oraindik.

Herri indigenek lurrerako eta lurralderako dituzten eskubideak Lanaren Nazioarteko Erakundearen Hitzarmeneko 169. artikuluan agertzen dira. Hitzarmen hori berretsita egon arren, Mexikoko gobernuak ez du praktikan kontuan hartzen. Lehenagokoa den arren, Vicente Foxek agindu zuen sei urteetan Puebla Panamá Plana (PPP) sartu zen indarrean. Gaur egun, ordea, Plan Mesoamerikarra esaten diote, eta herri indigenen gizarte eta ingurumen baliabide gehienak lortzea du estrategia eta helburu nagusi, garapen neoliberalerako planari jarrai-

pena eman nahian. Gainera, panista ere baden Felipe Calderón Hinojosaren gaur egungo gobernuak indar handiagoz bulztatu du plana. Garapen neoliberalerako plana da, eta, batez ere, kapital europar eta estatubatuarreko enpresa transnazional handien mesederako izango litzateke, eta antzinako bizibidea kenduko lieke bertako herriei. Hain zuzen ere, garapen neoliberalerako programok honako arlo hauek hartzen dituzte kontuan: proiektu turistiko handien sustapena ("ekoturismo" zentroak, ibilbide arkeologikoen ustiapena, abentura-kiroletarako biosfera-erreserbak edo ur-arroak...); monolaborantzen ekoizpenaren sustapena (Afrikako palmondo-sail estentsiboak eta beste batzuk, baita prozesatzeko lantegien eraikuntza ere, bioerregaiak lortzeko); eta biodibertsitatearen esplotazioaren sustapena, besteak beste, patenteak lortzeko eta ondasun naturalez jabetzeko. Horrez gain, komunikazio-az-

piegitura handiak eraiki beharko lirateke, autopistak edo aireportuak, esaterako, eta, aurreko proiektuetan bezala, bertan bizi diren herri indigenek zaindu, landu eta defendatzen dituzten lurak erdietsi beharko lirateke, hori guztiori abian jartzeko.

Hori guztiori dela eta, hiru gobernu-mailek (federalak, estatalak eta udal-mailakoak) estrategia sotilak garatzen dituzte, herri indigenak (eta iritzi publikoa) engainatzeko eta euren garapen neoliberalerako plana ezarri eta abian jartzeko. Politika-mailan, estrategia horiek ingurumen "kontserbazionismoaren" inguruko diskurtso errepikakorrean kokatzen dira, herri indigenen bizi-kalitatearen mesederako omen direlakoan. Egia esan, garapen-plan horietan, ez zaie herriei ezer galdetzen, ez dute haien hitza errespetatzen, ez dute sortzen diren mozkinen gaineko kontrol- <jarraipen 2. orrian>



lik eta jabetzarik eta gobernuen nahiz transnazionalen esku geratzen dira.

Gobernu-estrategia horien ondorioz, erkidegoak desjabetu, kanporatu eta birkokatu egiten dituzte. Gainera, gobernuak programak eta proiektuak eskaintzen dizkie, erkidegoak banatzeko eta asanbladan erabakitzekeo egiturak ahultzeko. Bestetik, gobernuak erakunde paramilitarrei laguntzen die, bere interesen aldekoak direlako (OPDDIC, Ejército de Dios, Alas de Águilas...), eta ingurua militarizatuta dago erabat, Merida Planak etengabe egiten duelako aurrera. Horrez gain, protesta soziala kriminalizatu egiten da zigorgabetasunaren babespean, eta komunikabideak erabiltzen dira, desinformatzeko, egitateak nahasteko, errua leporatzeko eta herri indigenen zein euren borroken izen ona zapuzteko.

### Erantzun antolatua

Gaur egun, erasoak, zapalkuntza,



mehatxuak eta zigorgabetasuna larriagotzen ari direnez, gatazkak sortzen dira erkidegoetan, eta egoera horiei antolatuta aurre egiten diete. Erkide-

goek jasaten dutena salatzen da jendaurrean, gobernuak eta paramilitarrek etengabe probokatzen dituzte-eta. Salaketa horrek gizarte-babes nazionala eta nazioartekoa erakartzea du helburu, erakunde, talde, plataformen... elkartzaren bitartez.

Egunez egunekoan eta euren lekue-tan, gehien bat bertako herriek osatutako gizarte-mugimenduak lanean ari dira, euren autonomia eraikitzekeo eta beste egikera eta harreman-modu bat eratzeko. Horrez gain, aspaldidanik dakite borroka egituratu behar direla eta euren indarrak uztartu behar dituztela, alderdikaria ez den proposamen zibil, baketsu, horizontal eta antikapitalistan oinarrituta. Horra hor EZLNk Lacandona Oihaneko Seigarren Adierazpenaren bidez (2005) egindako apustua. Bertan, beheko borroka guztiak eta ezkerre elkartu eta antolatu egiten ditu: Beste Kanpainaren inguruan, nazio-mailan; eta Nazioarteko Zetzaren inguruan, nazioartean.

### Esperientzia adierazgarriak

## Boliviako ardatz tronkaleko emakume indigenen eragina agenda politikoan

Proiektuaren zenbatekoa guztira: 225.165 €  
AECIDen ekarpena: 170.000 €

2009ko irailetik, Mundubat AECIDek finantzaturako *"Boliviako ardatz tronkaleko txirotasun-gerrikoetako emakume indigenen eragina agenda politiko publikoan. Indarkeria, osasuna eta partaidetza"* proiektua be-



tearazten ari da Bolivian, Informazio eta Komunikazioko Langileen Sare Nazionalaren, hau da, ADA Sarearen koordinaziopean.

Proiektuak Boliviako ardatz tronkaleko sektore txiroetako emakume in-

digenek indarkeriaren, osasunaren eta partaidetzaren arloan dituzten eskariak eta premiak hartu nahi ditu kontuan erakunde publikoetako agenda politikoetan (La Paz, El Alto, Santa Cruz eta Cochabamba).

Horretarako, bi ardatz estrategiko zehaztu dira proiektuan: bertako emakume indigenen erakunde sozia-

lak proposamen politikoaren zein eragin publikoaren eraketan sendotzea eta emakumeen erakunde horiek komunikabideetan duten agerpen publikoa nahiz agerikotasuna handitzea.

Bi ardatz horiek gaikuntza, prestakuntza eta informaziorako prozesuen bidez

egituratzen dira honako arlo hauetan: emakumeen eskubideak, partaidetza eta eragin politikoa, indarkeria, IKT eskuratzeko aukera, politika publikoak, lidergoa, negoziaketa eta gatazken konponbidea. Horrez gain, proiektua-

ren komunikazio-zeharkakotasuna ere hartu behar da kontuan: "Mujeres Tejiendo Redes" irratisaio, irratiko iragarriak eta mikroprogramak, telebista nazionalak proiektuari buruz emandako dokumentalak eta ADA Sareak argitaratutako hiruhilabetekaria.

Informazio gehiago:

[www.redada.org](http://www.redada.org)

[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)

[www.aecid.es/](http://www.aecid.es/) [www.aecid.bo](http://www.aecid.bo)

ADA Sarea Cochabambako hirian sortu zen 1994. urtean, eta, batez ere, herri indigenen zein emakumeen giza eskubideen alde lan egiten duten kazetariak eta komunikatzaileak elkartzen ditu.

Bere jarduketan bidez, partaidetzan oinarritutako kultura arteko gizarte demokratikoa eratu nahi du. Horretarako, tresna politiko bihurtzen du komunikazioa, gizon eta emakumeentzat bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa den gizartearen azalpenean eragina eduki dezan, aniztasun soziala eta kulturala errespetatuta.



Sareen garaia

EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXA

## Mundubat-ek Emakumeen Munduko Martxarekin bat egin zuen, Euskal Herria zeharkatu zuenean

Martxoaren 8tik 13rako astean, Emakumeen Munduko Martxak Euskal Herria zeharkatu zuen. Bidean, 25etik gora herri eta hiri tindatu zituen morez, eta elkartasun feministaren sareak ehundu zituen emakumeen zein gizarte-erakundeen artean. Bost egun horietan, ehunka emakume irten dira kalera, ezegonkortasuna eta indarkeria sexista salatzen, euren sexualitateari buruz erabakitzen eskubidea aldarrikatzeko eta elikaduraren subiranotasunaren balio zein jardunetan oinarritutako nekazaritza-ereduaren eraketa sustatzeko.

Mundubat-en, genero-berdintasunaren aldeko apustu estrategikoa egin dugu geure lankidetzak-ekintzetan eta garapenerako hezkuntza zein sentsibilizazio ekintzetan. Ahalegin horretan, guretzat lehentasunezkoa da hegoaldeko eta iparraldeko mugimendu feministekin itunak egituratzea. Hori dela eta, bete-betean parte hartu dugu Euskal Herriko Munduko Martxaren Nazioarteko 3. ekintzan. 3. ekintza horren koordinazioan inplikatu gara, eta Mundubat-eko emakume askok, langile eta boluntariook, ilusioz parte hartu dugu aste horretan antolatutako jardueretan.



2015. urtean, Emakumeen Munduko Martxa Euskal Herriko eta mundu zabaleko kaleetara itzuliko da. Emakume guztiok libreak izan arte egongo gara martxan!

<http://2010emakumeenmundumartxa.blogspot.com/>

*Emakumeen Munduko Martxa nazioarteko mugimendu feminista da, oinarritzako taldeak eta erakundeak elkartzen ditu eta txirotasunaren arrazoiak eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea eta bakean, justizian, berdintasunean, askatasunean nahiz elkartasunean oinarritutako mundua eratzea du helburu nagusi.*

## Iparra galdu gabe

### Agenda

- Apirilaren 3tik 11ra. Argazki-erakusketa  
“**Emakume nekazariak: eskubideak eta errealitateak**”  
Villamonteko Kultur Etxea  
Getxo. Bizkaia
- Apirilaren 17a.  
“**Transgenikoen aurkako manifestaldia**”  
Madril
- Apirilaren 23a. Tailerra  
“**Elikaduraren subiranotasuna, gaur egungo ekoizpen-ereduaren alternatiba**”  
Johana Cáceres (FENSUAGRO, Kolombia)  
eta Jordi Menéndez (Mundubat)  
Egiako Txoko Internazionalista. Donostia
- Maiatzaren 7a eta 8a. Tailerra  
“**Emakumeen giza eskubideak**”  
Egiako Txoko Internazionalista. Donostia
- Maiatzaren 14tik 18ra. Mundubat-en partaidetza  
“**Alternatibak bateratzen**”  
Madril

## Nekazaria izateko eskubidea

Oso garai zaila da nekazariarentzat. ‘Hegoaldean’, erkidego nekazariak euren herrialdeak elikatzen dituzte, baina euren lurren arpilaketa eta industrializazioa jasan behar dituzte nekazaritzako elikagaigintzako enpresen, meategien, konpainia hidroelektrikoen... eskutik. Horrez gain, ingurumenean desorekak sortzen direnez, ondorio handiak dituzte tokian-tokian zein maila orokorrean.

‘Iparraldean’, nekazariak gutxitu egin dira erabat, baina munduko gainerako nekazariak bezalako arazoak dituzte: nekazaritzako elikagaigintzako enpresek dirulaguntzak eta elikagaien merkaturaketa monopolizatzen dituzte, eta euren mesederako lege arautzaileak ezartzen dituzte.



Alde horretatik, nekazari txiki zein ertainen borrokek lurrei, haziei, iraunkortasunari eta antzinako jakintzari eustea dute helburu, etorkizuna eduki ahal izateko. Jardunaldiotan (martxoaren 24tik 26ra egin ziren Durangon, Bizkaia, eta Nekazarien Bideak, EHNEk eta Mundubat-ek antolatutako jardunaldiak), hegoaldeko nahiz iparraldeko nekazari gazteek alternatibak partekatzen eta erki-dego nekazarien ikuspegiak aztertzen aukera izan zuten.

Aurpegia ematen dugu

Conchi Picón, Finantza Saila

*Faktura, ordainketa-agindu eta bankuko egiaztagirri ugariaren azpian, Conchi dago Bilboko egoitza nagusian, langileei "pilak jartzeko" prest.*

## "Niretzat pozgarria da jakitea fakturetatik haratago erkidego ahulenei laguntzen dien taldearen ahaleginean parte hartzen dudala"



### Zertan datza zure lana?

Batez ere, garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko proiektuen jarraipen finantzarioa egiten dut, batzuetan lankidetzako zein ekintza humanitarioko proiektuen jarraipena egiten laguntzen dudan arren. Beraz, fakturak kontrolatzen ditut, egindako gastuak finantza-erakundeek emandako dirulaguntzetara egokitzen direla egiaztatuzko (gehienetan, gainera, erakunde publikoak dira). Horrez gain, egiaztatu egiten dut gastu horiek erakundeok zehaztutako arautegiak eta betekizunak betetzen dituztela.

**Zure lanak Mundubat-ek hegoaldeko erkidegoetan garatzen duen laguntasun-prozesuan zeresana duela uste duzu?**

Egunero fakturak egiaztatuzko garatzen dudanean, ez da bate-re erraza lotura zabalago hori ikustea, baina badakit egon badagoela.

Mundubat-eko kidea naizenetik, badakit nire lanak eta gainerako lankideen lanak zeresana duela euren artean oso urrun dauden eta arazo desberdinak dituzten erkidegoetan, bizi-baldintza hobek eskaizteko orduan. Niretzat benetan pozgarria da jakitea nire lanaren helburua ez dela morroi bati mozkin handiak ematea, diruz gainezka egon dadin, eta erkidego ahulenei laguntzen dien taldearen ahaleginean parte hartzen dudala.

**Ordezkaritzetako lankideak bisitatzeko aukerarik izan duzu?**

Batzuetan, prestakuntzako modulu eta tailerretan parte hartzeko aukera izan dut, ordezkaritzetako langileei laguntzeko. Egia esan, batzuetan erakunde publikoetako arautegiak ez dira lar argiak eta laguntza gehigarria eskatu behar da jarraipen finantzarioa in situ egin behar duten lankideentzat. Hain zuzen ere, Kuban eta Salvadorren egon naiz. Mundubat-ek zenbait plangintza-bilera egin zituen bertan, eta, bide batez, proiektuetako alderdi finantzarioak landu ahal izan nituen zenbait ordezkaritzetako Finantza Saileko langileekin.

**Dena dela, badakigu mundua ikustea duzula gogoko, ezta?**

Oso gustuko dut mundua ikustea eta ezagutzea. Urte osoa ematen dut hurrengo oporraldian, Aste Santuan, udan, zubi luzeetan nora joango naizen antolatzen. Oso lagungarria da deskonektatzeko eta burua irekitzeko. Kilometroak egin behar ditut deskonektatzeko; bestela, egun osoa emango nuke bulegoan. Zenbait lekutan egon naiz: Zeelanda Berria, Australia, Vietnam, Kanbodia, Birmania, Estatu Batuak, Argentina, Txile, Kuba, Kolonbia, Tanzania, Namibia, Zanzibar... Oraindik, ordea, badut zer ikusirik! Era guztietako bidaiak egiten ditut: Kongoko gorilak ikusteko bidaiak aktiboak edo Zimbabwera joaten naiz jarraian edo astebeste ematen dut Dominikar Errepublikako hondartza batean etzanda, besterik egin gabe. Oso gustuko dut bidaiatzea, ia-ia, larregi.

## 20. urteurrenaren ospakizuna Habanan

Mundubat-en 20. urteurrena zenbait eratarata eta leku askotan ospatu zen. Oraingoan, abenduaren 11n Habanako ACPAko egoitza nazionalan egindakoa gogoratuko dugu. Adiskideen artean, *Son cosas chiquitas, 20 años de MUNDUBAT* liburua aurkeztu genuen. Izan ere, 12tik gora herrialdetan borrokatu, lan egin, sufritu eta barre egiten duten gizon eta emakumeekin lankidetzaren, elkartasunaren eta konpromisoaren arloan garatutako ibilbidea ospatzeko argitaratutako liburua da: Boliviako Altiplanoa, Chiapasko mendiak, Kubako izar solit(d)arioa eta Saharako neba-arreben hareak.



Ekitaldian, Mundubat-ekin aspaldidanik lan egiten duten erakundeek parte hartu zuten: ACPAko kideak eta Teresita Planas presidentea; FMCKo emakume nekazekin, Arelis bigarren idazkari nazionala eta Mujeres aldizkari zuzendaria; eta gure lagun kutuna, Isabelita Moya.

Era berean, Kubako AECIDeko koordinatzaile nagusia ere egon zen gurekin, Juan Diego kidea, alegia. Era berean, guretzat ohorea izan zen Japoniako Enbaxadako funtzionarioak etortzea: Morita jauna eta Fabiana andrea. MINCEX ere egon zen bertan, Annet del Rey espezialistaren bidez, baita nazioarteko GKE-etako kideak ere: Richard, Paola, Beat, Borna, Laura...

Nola ez, *Mundubat se abre a Cuba* artikularen autore material eta intelektuala ere egon zen, lankidetzaren munduan bidaide bikaina eta betiko adiskidea den Elio Perón, hain zuzen ere.

Askoz jende gehiago zegoen, baina oroigarri honetan ez dugu "parte-hartzaileen zerrenda" egin nahi, eguneroko lanean oso ohituta bagaude ere.

Guzti-guztiei gure eskerrik sakonena, Mundubat-ekin 20 urteko bizitza instituzionala partekatzeagatik.

José Murillo.

Mundubat-eko Ordezkaritza Habanan